



AYUNTAMIENTO DEL CONCEJO DE SOPUERTA UDALA SOPUERTAKO UDALA BIZKAIA Registro General Enplegu Zinegotzaria	
- 1 MAR 2016	
Entrada -arrera	Salida - Irteera
Núm:	Núm.: 598
Zkia..	Zkia..

Núm.....

## BANDO

# ESKOLA ARRAKASTAREN SUSTAPENA

Sopuertako Udala, Gizarte Ongizate eta Enplegu Zinegotzigoaren bitartez, "ESKOLA-ARRAKASTAREN SUSTAPENA" programa bultzatzen ari da.

Programa doakoa da, Gurutze Gorriak kudeatzen du eta Sopuertako 7 eta 11 urte bitarteko umeentzat da. Honako hauek dira proiektuaren xedeak:

1. eskolaz kanpoko euskarri izatea, etxeko lanak egiten laguntza izateko eta ikaste-teknikak eskuratzeko.
2. elikadura- zein higiene-ohitura osasungarriak sustatzea, aisia eta aisialdiko jarduerak egitearekin batera.
3. umeak sentibilizaraztea kultura aniztasunarekin, bake- eta osasun-hezkuntzarekin zerikusia duten gai guztietan.

Ekintzen barruan, besteak beste, merienda orekatua izenekoa dago, txikienen elikadura osasungarria osatzeko diseinatutako ekintza.

Programan, gehienez ere, 15 umeak hartu ahalko dute parte bi begirale boluntarioko.

"ESKOLA-ARRAKASTAREN SUSTAPENA" programa ostegunero egiten da, 16:30ean, Gizarte Etxeko Mello aretoan.

"ESKOLA-ARRAKASTAREN SUSTAPENA" programan parte hartzeko edo boluntario gisa laguntzeko, Enkarterriko Gurutze Gorriarekin jarri behar da harremanetan (telefono-zenbakia: 946670584) edo Sopuertako Udalarekin zuzenean (telefono-zenbakia: 946504052).

Sopuerta, 2016ko otsailaren 29an

Alkatea

Emilio Reina Laiseca